# EROSKETA-OHITUREI BURUZKO INKESTA



Azken hogeita hamar urteotan, ehungintza-industriak oso teknologia aurreratua erabiltzen duten industria moderno bilakatu dira, eta teknologia metodo berriek langileen beharra asko gutxitu dute. Garai hartako egoera nolakoa zen ezagutzeko eta emaitzak gaur egungo egoerarekin alderatzeko, galdeketa bat egingo duzue.

Ziur aski, zuen inguruan 55 edo 60 urteko jendea ezagutuko duzue (aiton-amonak, bizilagunak); bestela, zuen herrian edo auzoan dagoen egoitza batera joan zaitezte. Hamabost pertsonari ondorengo galdera hauek egin beharko dizkiezue. Horretarako, erantzun bakoitzeko hamabost laukitxo dituen grafiko bat egin beharko duzue.

1- Zenbat galtza edo gona zeuzkaten umeak zirenean?
2- Zenbat beroki?
3- Nork egiten zuen arropa?
4- Non erosten zuten?
5- Zenbat denboratik behin estreinatzen zuten jantzi berri bat?
6- Noiz hasi ziren emakumezkoak galtzak jazten?
7- Zer egiten zen arropa hondatzen zenean, txiki geratzen zenean?

Zuen gelako 15 ikaskidek ematen dituzten erantzunekin konpara dezakezue.

1- Zenbat galtza edo gona dauzkazue?
2- Zenbat beroki?
3- Zeinek egiten du arropa hau?
4- Non erosten duzue?
5- Zenbat denboratik behin estreinatzen duzue jantzi berri bat?
6- Zer erabiltzen duzue gehiago, galtzak ala gona?
7- Zer egiten duzue arropa hondatzen denean, txiki geratzen denean?

30 emaitzen konparazioa gelan azaldu beharko duzue. Horretarako, hona hemen eredu bat: 55 edo 60 urtekoek umeak zirenean X gona eta X galtza zeuzkatela erantzun dute; gelako ikaskideek, berriz, X gona eta X galtza dauzkatela erantzun dute.






EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIOAMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO